

## BLAZE (2018) eta #EMAKUMEEN PLAZERA (2018) filmak eskuragarri Filmazpit katalogoan

25 urte ondoren, Ethan Hawke zuzendari modura itzultzen zen Sundance jaialdira, *Texas Outlaw Music* mugimenduaren legenda ezezagun Blaze Foley-ren bizitza pantailaratzen duen **Blaze** (2018) filmarekin. Bestalde, Barbara Miller dokumentalgileak, bost emakumeren kontakizunen bidez, emakumeen sexualitatearen eta plazeraren errealitate konplexuetara hurbiltzen gaitu **#Emakumeen plazera** (2018) lanean.

**Blaze** filma Foley-ren berri munduratzeko egon daitekeen modurik ederrenetakoa da. Hawke zuzendariak Sybil Rosen-ekin batera idatzi du gidoia, Rosen-en memorietan oinarrituta hain zuzen ere. Sybil Rosen (Alia Shawkat) Foley-ren maitale eta bere hitzetan, musa ere izan zen. Abeslariak "ile kizkurdun neska txiki eder judua" deitzen zuen. Filma Foley-ren abesti, istorio eta txistez osatuta dago eta Dickey aktoreak bikain antzezten du haren arima konplexua. Abeslariak Atlanta, Chicago, Houston, New York eta azkenik Austin-en zehar bidaiatuz izan zuen bizitza ulertzeko, Hawke-k haren heriotzaren ondoren egin zen irratiko elkarrizketa bat erabiltzen du. Kamerari bizkarra emanda, Hawke berak zuzentzen du abeslari zenduaren lagun-min eta lankide izan zen Townes Van Zandt (Charlie Sexton) eta Zee (Josh Hamilton) harmonika jotzaileari eginiko elkarrizketa. Filmak maite du Foley-ren musika eta behin baino gehiagotan haren abestiak osorik entzuten dira. Blaze opari bat da Foley-ren jarraitzaileentzat eta zeu ere bilakatuko zaitu bat oraindik ez bazara haren musikaz maitemindu.

Barbara Millerren **#Emakumeen plazera** dokumentalak bost emakume ausart, adimentsu eta zehatz aurkezten ditu, gizarte arkaiko eta patriarkalek eta komunitate erlijioso ezberdinek inposatutako isiltasuna apurtzen: Deborah Feldman, komunitate judu ortodoxotik erbesteratutako idazle amerikarra; Leyla Hussein, Somaliako psikoterapeuta, ablazioaren biktima eta ekintzaile soziala; Rokudenashiko, lizunkeriagatik kondenatutako artista japoniarra; Doris Wagner, kleroaren kide batek sexualki bortxatutako moja ohia; eta Vithika Yadav-agatik, Indiako genero-eskubide eta eskubide sexualen aldeko aktibista. **#Emakumeen plazera**-k egoera unibertsalak azaleratzen ditu, eta emakume horien borroka arrakastatsua erakusten du, sexualitatearen autodeterminazio-eskubidearen alde eta plazer-harreman berdinzaleagoen alde. Emakume horiek hitz egitea erabaki zuten, eta azken adibide dira bizitzarekiko kemenak, indarrak eta gogoak gizarte egiturak nola alda ditzaketen.

**Blaze** honako jaialdietan egon da besteak beste: Sundance Film Festival 2018; Locarno International Film Festival 2018; American Film Festival 2019; Munich Film Festival 2019. **# Emakumeen plazera** bere aldetik IDFA 2018; Documentary Festival Thessaloniki 2019; Boston Jewish Festival 2019 o el Festival Cine por Mujeres de Madrid 2019 bezalako jaialdietan ikusi da eta Premio Zonta Club de Locarno Festival (2018) eta Dok Leipzigen (2018) Epaimahai Interlijiosoaren Saria irabazi du besteak beste.

Lan hauek gehitu ondoren, Filmazpit katalogoak jatorrizko bertsioan eta publiko zabal bati zuzendutako kalitatezko film sorta ederra jartzen du interesa duten programatzaile eta eragile kulturalen eskura, kosturik gabe proiektzioak antolatu ditzaten. Filma guztiak jatorrizko bertsioan eta euskarazko azpigituluekin eskaintzen dira. Filmazpit, Eusko Jaurlaritzak finantzatu eta Donostia Zinemaldia eta Euskadiko Filmategiarekin batera Donostia Kulturak 2011 urtetik kudeatzen duen euskarazko azpigituludun zinema zabaltzeko programa da.

Programaren informazio osoa, filmen katalogoa eta kontaktua [www.filmazpit.eus](http://www.filmazpit.eus) webgunean.

Kudeatzaileak:



Laguntzaileak:



**BLAZE (2018) y #FEMALE PLEASURE (2018) disponibles en el catálogo Filmazpit**

Después de 25 años, Ethan Hawke volvió a Sundance como director de **Blaze** (2018), largometraje sobre la vida del desconocido pero a la vez legendario Blaze Foley, músico partícipe del movimiento *Texas Outlaw Music*. Por otro lado, la documentalista Barbara Miller nos acerca, a través de los relatos de cinco mujeres, a las complejas realidades de la sexualidad y placer femeninos en **#Female Pleasure** (2018).

**Blaze** puede que sea la manera más bella de dar a conocer al mundo la figura de Foley. El director Hawke ha coescrito el guion con Sybil Rosen basándose en las memorias de esta. Sybil Rosen (Alia Shawkat) fue amante y según sus palabras musa de Foley. El músico la llamaba con cariño “*una hermosa y pequeña chica judía de pelo rizado*”. La película está repleta de canciones, historias y anécdotas de Foley y el actor Ben Dickey interpreta con total veracidad el complejo espíritu del artista. Para entender la vida en la carretera que llevó Foley por Atlanta, Chicago, Houston, Nueva York y por último Austin, Hawke utiliza una entrevista de radio que se grabó después de su muerte. Detrás de la cámara es el propio Hawke quien conduce la entrevista con el íntimo amigo y compañero de Foley Townes Van Zandt (Charlie Sexton) y con Zee (Josh Hamilton), músico que tocaba la armónica. La película ama la música de Foley y más de una vez sus canciones se interpretan enteras. **Blaze** es un regalo para los seguidores de Foley y si todavía no te has enamorado de su música es probable que haga de ti un nuevo seguidor.

El documental de Barbara Miller **#Female Pleasure** presenta a cinco mujeres valientes, inteligentes y determinadas rompiendo el silencio impuesto por sociedades arcaicas y patriarcales y por diferentes comunidades religiosas: Deborah Feldman –escritora americana exiliada de la comunidad judía ortodoxa–, Leyla Hussein –psicoterapeuta y activista social somalí víctima de ablación–, Rokudenashiko –artista japonesa condenada por obscenidad–, Doris Wagner –exmonja abusada sexualmente por un miembro del clero– y Vithika Yadav –activista por los derechos sexuales y de género en la India–. **#Female Pleasure** revela situaciones universales y muestra la lucha exitosa de estas mujeres por el derecho a la autodeterminación de su sexualidad y por unas relaciones de placer más igualitarias. Estas mujeres decidieron hablar y son el último ejemplo de cómo el coraje, la fuerza y el entusiasmo por la vida pueden cambiar las estructuras sociales.

**Blaze** ha participado entre otros en los siguientes festivales: Sundance Film Festival 2018; Locarno International Film Festival 2018; American Film Festival 2019; Munich Film Festival 2019. **#Female Pleasure** se ha paseado por festivales como IDFA 2018; Documentary Festival Thessaloniki 2019; Boston Jewish Festival 2019 o el Festival Cine por Mujeres de Madrid 2019, y ha recibido el Premio Zonta Club del Locarno Festival (2018) y el Premio Especial del Jurado Interreligioso en Dok Leipzig (2018).

Tras estas nuevas incorporaciones al programa, el catálogo de Filmazpit cuenta con una colección de películas en versión original, de calidad y dirigidas a un público amplio para que aquellos programadores y agentes culturales interesados puedan organizar proyecciones sin coste alguno. Todas las películas del catálogo están en versión original con subtítulos en euskera. Filmazpit es una iniciativa financiada por el Gobierno Vasco y que con la colaboración del Festival de Cine de San Sebastián y Fimoteca Vasca gestiona Donostia Kultura desde 2011 con el objetivo de difundir el cine con subtítulos en euskera.

Toda la información sobre el programa, el catálogo de películas así como el contacto en [www.filmazpit.eus](http://www.filmazpit.eus).

Kudeatzaileak:



Laguntzaileak:

